

APARTEKO ETA PRESAKO OSOKO BILKURA

2003.02.21

Tolosako Udaletxean, 2003ko otsailaren 21ean, arratsaldeko zazpitan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da aparteko eta presako osoko bilkura egiteko. Mahaiburu Antton Izagirre Korporazioko alkate-lehendakaria izan da eta ondoren zehazten diren ondorengo gaiak aztertzeko udalbazkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa a las diecinueve horas del día 21 de febrero de 2003, se reúne el Ayuntamiento Pleno en sesión extraordinaria y urgente y primera convocatoria, bajo la presidencia del alcalde Antton Izagirre, y la asistencia de los miembros que se expresan, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:
Antton Izagirre Gorostegi

Bertaratutako zinegotziak:

Miren Nekane Eizagirre Odriozola
Begoña Aldalur Urdanpilleta
Aitor Iztueta Garaikoetxea
Iñaki Elduaen Ugartemendia
Silvana Ostiza Goikoetxea
Gotzon Lopez Lorenzo
Jose Gurrutxaga Segurola

Amaia Etxaniz Etxeberria
Jokin Bildarratz Sorron
Jose Maria Agirre Eskisabel
Antxon Gonzalez Monfort
Aitzol Arozena Zufiria

Ez bertaratutakoak:
Maite Urbistondo Insausti
Angel Yañez Ares

Oscar Hugo Renedo Nieto
Juan Carlos Araniguria Rodrigo

Idazkaria:
Jose Luis Unanue Ugalde

- 1.- Osoko bilkura honen premiatasuna berbaieztatzea.
- 2.- Martxelo Otamendi Egunkariako zuzendari tolosarraren atxiloketa eta Egunkariaren itxiera salatzeko mozioa.

- 1.- Ratificación del carácter urgente de la presente convocatoria.
- 2.- Moción para denunciar el cierre de Egunkaria y la detención de su director Matxelo Otamendi.

1.- Osoko bilkura honen premiatasuna berbaieztatzea.

1.- Ratificación del carácter urgente de la presente convocatoria.

Alkateak honako hitz hauekin ireki du saioa:

“Atzoko gertakizunak direla eta, hau da, Egunkariaren itxiera eta bertako kide batzuk atxilotuak izan direnez, batik bat zuzendaria tolosarra izanik, presazko bilkura egitea erabaki genuen. Horretarako Gobernu taldeak proposatu du mozio bat, eta EA-EAJ koalizioak ordezko bat. Hala ere, lehendabizi lehenengo puntuari ekingo diogu”.

Horrela, Aparteko bilkura honen presako izaera botaziora jarri delarik, eta Erakunde Lokalen Organizazio, Funtzionamendu eta Erregimen Jusidikoaren Araudiko 79 artikulua agintzen duena kontuan izanik, aho batez berretsi dute berbaieztatze-proposamena bilkuran ziren batzarkideek.

2.- Martxelo Otamendi Egunkariako zuzendari tolosarraren atxiloketa eta Egunkariaren itxiera salatzeke mozioa.

2.- Moción para denunciar el cierre de Egunkaria y la detención de su director Matxelo Otamendi.

Lehenik, alkateak bere taldeak aurkeztutako mozioa irakurri du. Honela dio:

“Tolosako Sozialista Abertzaleak Udal Taldeak, Euskaldunon Egunkariaren indarkeriazko itxierari buruzko, ondorengo mozioa aurkezten du Osoko Udal Batzarrean premiaz eztabaidatua izan dadin.

MOZIOA

Atzo goizaldean Guardia Zibilak Euskaldunon Egunkariaren egoitza nagusia zein Gasteizen, Bilbon eta Iruñean zituen ordezkaritzak indarrez itxi zituen. Gainera, 10 lagun atxilotuak eta inkomunikatuak izan dira, guztiak, Egunkariaren Administrazio Kontseilu kideak.

Eraso berri hau, Estatuak Euskal Herriaren aurka daraman ofentsiba itsuaren baitan kokatu beharra daga, non euskal nortasunaren eta izaeraren aldeko mugimendu, tresna eta jarrera guztiak aspaldidanik kriminalizatuak izaten ari diren. Euskal Herria, herri bizia da, bere eskubide demokratiko eta nazionalen aldeko lana etengabe egin duena eta egiten ari dena eta horixe da, hain justu, Estatuaren estrategia errepresiboaren bitartez moztu nahi den dinamika herrikoa eta eraikitzailea:

Euskaldunon Egunkaria egun gure herrian egunero leuskaraz idazten den komunikabide bakarra da eta 12 urtez gure kaleetan eta gure kioskoetan egon da herritar eta profesional askoren ahaleginari esker. Madrileko Gobernuak, PPk eta PSOEk herri honi Estatu eredu zehatza inposatu nahi diote indarrez: eredu politiko, soziala, ekonomikoa eta kulturala, Euskal Herriaren eskubideak ukatzen dituen eredu eta euskal nortasuna behin betikoz lurperatuko duena: horrek faxismoa du izena, eta, euskaldunok jakin badakigu faxismoari nola aurre egin behar zaion.

Gaur, egunean hitzak motz, geratzen dira, ez dira nahikoa gure herriaren eskubideen aurka Madrilek irekia duen ofentsiba politiko-militarra geldiarazteko. Salaketak hutsalak dira baldin eta ekintzekin eta konpromiso zehatzekin lotzen ez badira.

Hau dela eta, ondorengo. puntu hauek aurkezten ditugu Osoko Udal Batzarrera, bertan premiaz eztabaidatu eta onartu ditzan:

- 1) Udal honek, Espainiar estatuaren eraso errepresibo berri hau salatzen du, zeinaren bitartez

adierazpen askatasuna eta informazio eskubideak urratuak izan diren; Euskaldunon Egunkariaren aurkako operazio; honekin euskalgintza eta euskal herri osoa erasotuak izan direla adierazten du.

- 2) *Udal honek, Estatu espainiarrak Euskal Herriari ezartzen dion salbuespen egoera errefusatzeko du; era berean ez du onartzen gaur egun, Zuzenbide Estatuaren izenean, euskal kultura, komunikabideak, eragile sozialak eta oro har nazioartean ari diren orok jasaten duten jazarpen politiko eta polizia, gure herriaren aurka benetako jardura taxista hutsa baita.*
- 3) *Udal honek, bere elkartasuna adierazi nahi die atxilotu guztiei, bere kezka azaltzen du Guardia Zibilaren eskuetan jasan dezaketen tratuek eta berehalako askatasuna eskatzen du.*
- 4) *Udal honek elkartasuna adierazteaz gain, Euskaldunon Egunkariaren arduradunak, langileak eta irakurleak, behar duten guztietarako bere disposizio osoa azaldu nahi die. Halaber, Euskal instituzio guztiei eskatzen die, euskal egunkariaren proiektu berri bat bultzatzeko behar diren bitarteko tekniko eta ekonomikoekin laguntzea.*
- 5) *Udal honek, operazio honetik desadostasuna eta salaketa azaltzeko antolatutako mobilizazioetan parte hartzeko deia luzatzen dio gizarteari”.*

Jarraian, EA-EAJ koalizioa zinegotzia den Jokin Bildarratz Sorronek, ordezkapen mozioa irakurri aurretik, adierazi du ordezkari mozioa ez dutela aurkeztu Sozialista Abertzaleak aurkeztutakoaren aurka daudelako, baizik eta gaurko egoerarekin gehiago zehazten duelako beraienak.

Moziok honela dio:

- 1.- *Udal honek, Barne ministeritzaren bultzadaz, Euskaldunon Egunkariaren aurka egindako operazio polizia-judiziala irmotasunez salatu nahi du Oinarritzko giza eskubideak, adierazpen askatasuna eta informazio eskubidea errotik urratuak izan direlako.*
- 2.- *Barne ministeritzak eta Entzutegi Nazionalak elkarrekin ateratako oharrek argi uzten du Espainiako gobernuaren izaera totalitarioa, Espainian botere banaketaren ordezkari, bultzada politiko antidemokratikoetan oinarritutako hau bezalako iharduerak daude, berauek gogor gaitzesten ditu udal honek.*
- 3.- *Espainiar Estatuak berezkoa duen gezurra oinarri hartuta, euskara eta euskalgintza diharduen oro indarkeriarekin nahastu nahi izatea, euskara eta euskal nortasunaren ikur guztiak etengabeko sospetxapean jartzeak, abertzaletasunaren kriminalizazio kanpainan aurrerapauso kezagarria eta arriskutsua salatu nahi du Udal honek.*
- 4.- *Udal honek, bere elkartasuna adierazi nahi die operazio polizia-judizial honetan atxilotutakoak, bere kezka azaltzen du Guardia Zibilaren eskuetan jasan dezaketen tratuek eta berehalako askatasuna eskatzen du. Era berean, Euskaldunon Egunkariaren arduradunak, langileak eta irakurleak ere bere elkartasuna adierazten die.*
- 5.- *Udal honek, Espainiako gobernuari, euskaldunon Egunkariaren aurkako eraso amaitu eta berehala irekitzea esijitzen du, otsailaren 19an zegoen egoerara itzuliaz.*
- 6.- *Udal honek, dei egiten du, bihar Donostian arratsaldeko 5etan “Egunkaria Aurrera Bai Euskarari”, lempaean egingo den manifestazioan parte hartzea”.*

Alkateak:

“Bozketa egin aurretik Sozialista Abertzaleak erreflexio bat egin nahi dugu: gure aurkeztu dugun mozioa eta EA-EAJk aurkeztu dutenen artean ez dago alde handirik. Nahiz eta esan ditugunak ondo justifikatuak dauden, iruditzen zaigu aurka baino alde azaltzea egokiagoa dela. Inoiz baino beharrezkoa da aurka baino alde azaltzea. Euskararen mundua eta abertzaletasuna zigortuak dauden honetan, zaila izango litzateke ulertzea bi mozio, antzeko edukiarekin, ñabardurak gora behera, onartzea. Gure dei bat

egiten diogu EA-EAJ-ri, hemendik aterako den mozioa edo erabakia izan dadila batzeko eta biltzeko, praktikan aurrera egiteko. Beraz, ahalegin bat eskatu nahi dizuegu zuen mozioa puntuz puntu bozkatu ahal izateko, hainbat puntutan parekotasuna dagoelako eta esan dudan bezala hartuko den erabakiak biltzeko izan dadin, eta ez zatitzeko.

Garbi utzirik guk aurkeztutakoari ez diogula uko egiten, baina osoko bilkura honetatik Estatuaren erasoaren aurka indarturik atera nahi dugu abertzaleok, eta baita Euskal munduak eta Euskal kulturak. Beraz, puntuz puntu bozkatzea eskatzen dut.

EA-EAJ alderdiko kideak ados agertu dira eskaerarekin eta, beraz, ordezeko mozioa puntuz puntu bozkatzeari ekin diote batzarkideek.

Lehenik: Udal honek, Barne ministeritzaren bultzadaz, Euskaldunon Egunkariaren aurka egindako operazio polizial-judiziala irmotasunez salatu nahi du Oinarrizko giza eskubideak, adierazpen askatasuna eta informazio eskubidea errotik urratuak izan direlako.

Bozketa egin ondoren, aho batez **onartu da** puntua.

Bigarren: Barne ministeritzak eta Entzutegi Nazionalak elkarrekin ateratako oharra argi uzten du Espainiako gobernuaren izaera totalitarioa, Espainian botere banaketaren orde, bultzada politiko antidemokratikoetan oinarritutako hau bezalako iharduerak daude, berauek gogor gaitzesten ditu udal honek.

Bozketa egin ondoren, aho batez **onartu da** puntua.

Hirugarren: Espainiar Estatuak berezkoa duen gezurra oinarri hartuta, euskara eta euskalgintzan diharduen oro indarkeriarekin nahastu nahi izatea, euskara eta euskal nortasunaren ikur guztiak etengabeko sospetxapean jartzeak, abertzaletasunaren kriminalizazio kanpainan aurrerapauso kezagarria eta arriskutsua salatu nahi du Udal honek.

Bozketa pasa aurretik, alkateak: "Gure ikuspegi propioa azaldu nahi dugu. Gure ustez, indarkeria aipatzea aitzakia bat besterik ez da Estatuaren aldetik eta ontzat ez dugu emango, nahastu nahi duelako Euskalgintza indarkeriarekin. Beraz, abstenitu egingo gara".

Puntu hau bozketara jarri ondoren, gehiengoz, **onartu da**, Sozialista Abertzaleak taldearen abstentzioarekin.

Laugarren: Udal honek, bere elkartasuna adierazi nahi die operazio polizial-judizial honetan atxilotutakoei, bere kezka azaltzen du Guardia Zibilaren eskuetan jasan dezaketen tratua eta berehalako askatasuna eskatzen du. Era berean, Euskaldunon Egunkariaren arduradunoi, langileei eta irakurleei ere bere elkartasuna adierazten die.

Bozketa egin ondoren, aho batez **onartu da** puntua.

Bosgarren:- Udal honek, Espainiako gobernuari, euskaldunon Egunkariaren aurkako eraso amaitu eta berehala irekitzea exijitzen du, otsailaren 19an zegoen egoerara itzuliaz.

Bozketa egin ondoren, aho batez **onartu da** puntua.

Seigarren:- Udal honek, dei egiten du, bihar Donostian arratsaldeko 5etan "Egunkaria Aurrera Bai Euskarari", lemapean egingo den manifestazioan parte hartzera".

Bozketa egin ondoren, aho batez **onartu da** puntua.

Bukatzeko, alkateak honako hau esan du Egunkariako langileei zuzenduz: "Gure aldetik esan ez dugula jarri gure mozioa bozketan, baina gure mozioko laugarren puntuak honela dioela:

APARTEKO ETA PRESAKO OSOKO BILKURA
2003.02.21

“Udal honek elkartasuna adierazteaz gain, Euskaldunon Egunkariaren arduradunei, langileei eta irakurleei, behar duten guztietarako bere disposizio osoa azaldu nahi die. Halaber, Euskal instituzio guztiei eskatzen die, euskal egunkariaren proiektu berri bat bultzatzeko behar diren bitarteko tekniko eta ekonomikoekin laguntzea”.

Honen inguruan, esan behar dut, puntu hori jarri badugu, benetan sinesten dugulako izan dela, eta eskuartean ditugun baliabideak zuen eskuetan jartzeko prest gaudela, bihar Egunkaria eta bere edukia kalean jarrai daitezzen. Esan ere, ondorengo hilabeteetan ez dakigula zer gertatuko den, baina proiektua aurrera eramatea nahi baldin baduzue, prest gaudela, eta honela adieraziko dugula bere garaian eta gure baliabideekin kontatzeko. Dena den, egun hauek pasatzen direnean, hotzean, momentua izango da pentsatzeko gauza hauetaz.

Besterik gabe, arratsaldeko 8 eta erdietan bilera bukatutzat eman du.

Sin más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 20 horas y 30 minutos.

ALKATEA

IDAZKARIA